

AMAIKAGARREN MENDEKO IDAZKIETAN EUSKAL-IZENEN IDAZKERA

Beste edozerren aurretik, irakurleari barkapena eskatu behar-
rean aurkitzen naiz, aldiakari onen aurreko zenbakian, ez dakit
nere erruz, edo irarkolaren erruz, AMAIKAGARREN MENDEKO
esan bear zan tokian AMARGARREN MENDEKO esaten bait zan.
«Lapsus calami» edo «lumaren irristada» bat izan nuan ori; errua,
seguruaski, nerea bait zan.

Izenburu orrekin, 1025'ean idatzitako larruki bat asi giñan
aztertzen. Garrantzi aundiko larrukia. Bertan agertzen da ba lenen-
go aldiz Gipuzkoa'ren izena; ta Gipuzkoa'ko lenen Jauna'ren
izena!

Ekin dezagun gaur larruki ortan agertzen diran izenei begiraldi
bat ematen.

Eta, aurrena aztertu bearco dugun izena, naitanaiez, *Ollaza-
bal*, izan bearco da, bertako lekaidetxe edo jauretxea bait da
larruki guztiaren muiña,

OLLAZABAL-. Orrelaxe: *Ollazabal*, naiz beste askok *Olazabal*
biurtu. Baiñan larrukian, *Ollazabal* dator. *Bi LLz!*

Garrantzi aundikoa derizkit ori:

Lenengo, gure *LL*ren doñua bi *LL*een bitartez ematen, nik dakidanez ziurki, aurreneko idazkia au dugulako;

Bigarren, dokumentu zarretan, *Ha Iri* aurre-ezartzea, gure *LL*ren doñua emateko erabiltzen zala erakusten digulako.

Zergaitik diodan ori?

Beste leenagoko larrukietan, ori, ain ziurki egiztatzerik izan ez dutalako.

Badakit, dokumentu zarragoetan, eskierki gure *LL* bezala agoskatzen ziran *LH*ak agertzen dirala. Donemillan'go burni barren dokumentuak adibidez: *Harriolba, Olhvarri, Olhaerrea*, eta abar. Larruki ori 1025'ekoa da. Gipuzkoa'ko Lenen Jaunak idatziazarazitako gure larruki onen urte ber-berekoa, beraz.

Danadala, nere «fitxa» edo ezarki-txartelen artean badut sail eder bat *LH* gure *LL* adierazteko maiz erabiltzen zala adierazten diguna. Ez da arritzekoa. Gaur bertan portugaldarrek, gure *LL* doñua *LH*z ematen bait dute. *Batalha* izango da bearbada zuk geiena ezagutzen duzun itza: Aljubarrota'n españiarrek jasan zuten jipoi gogor lotsagarriaren oroigaillu lez portugaldar abertzaleek eraiki zuten lekaidetxe bikaiñaren izena: *BATALHA*; gure agoskeran, *BATALLA*.

OLA itza, *XI, XII* eta *XIII* mendeetako larrukietan bereiziki, beti edo ia beti, *OLHA* ikusiko duzu, eta izen ori, eskierki, *OLLA* agoskatzen zuten.

Bedi lekuko larruki aietako *OLHAVARRI* ori bera. Gaur erri orri bertako biztanleek eta arabarrek danek, oraindik, *OLLABARRI* esaten bait diote.

Noiz edo bein lumalari bat-edo-bateri *H*'ak labain ere egiten dio bere tokitik. Orrela, an edo emen, *Olhabarri*'ren ordez *Holabari* ere ikusi aal izango duzu. Era berean *OLHAZAR* eta *HOLAZAR* ere.

1094'ean idatzitako larruki batean Halazar agertzen zaigu. *HALAZAR* ori *HOLAZAR*'en aldakuntza besterik ez dala esango didazu noski. Ez nator zurekin bat, larru ortan bertan, lerro batzuk

beeraxeago, H'a ganoragabekeri utsez tokialdatuz, ALHANIELLA bat bait dakusgu. Baiña Arabar-Errioxa'ko izen oietan ALA aurrizki ori zer izan daitekean galdetzen ba' didazu, ez dakidala, erantzun bearko dizut.

Bein baiño geiagotan larruki bat berean, itz bat bera, lerro batean H'z HOLARTE, eta bi lerroz geroago H'rik gabe ikusiko duzu: OLARTE. Orrela 1574'ko uztailaren 6'eko dokumentu batean.

XVI'garren mendea bezain beranduko idaztiek ere ez dutela balio, «elbatuazaleek» H'a sartzeko nai izan duten bezala, gure gaurko idazkeraren eredu lez artuak izateko. Ezta XVII'goek edo XVIII'ek ere! Ez euskerarentzat, ez gaztelerarentzat, ez beste inongo erderarentzat. Euskerarena bezain baldar bait zebillen beste izkuntzen ortografia.

Eta beste batzuetan, bi L darabilzkite larruki zarrek gure LL'ren doiñua emateko: OLLAVARRE, adibidez, eta ARRIOLLA, 1315'ean. HOLLARIZU, burnibarren larrukian. Luzaro jarri nezake, adibide lez, izenak eta izenak aipatzen. Larruki zarretako OHORO ere, gaur bertan OLLORO esaten dugu; eta LHODIO, LLODIO.

Badut beste adigaillu bat ere:

Gure larrukiko OLLAZABAL, Altzo Beekoa bera da. Ba, Altzo Beekoa eta Tolosa artean, mendi bat dago; esan ere esan daiteke Gipuzkoa'ko lenen Jaunak Peña'ko Donibane Batailariaren lekaidetxeari 1025'en emandako lekaidetxu ura, OLLAZABAL'ko lekaidetxea, mendi orren magalean zegoala. Badirudi mendi orren izena gaurko mintzaeran *Olaon* izango litzakela. Ez ba. OLLAON esan izan diote beti tolosarrek.

Mendi orri nola esan bear zaio, galde egin nion nik bein Xebe Peña mendigoizale trebeari: *¿Olaon ala Ollaon?*, eta berak erantzun: OLLAON. Galdera bera, beste bein, Xebe bezain mendigoizale trebe ta ezaguna dan Periko Elosegi adiskideari, erantzun berdiña jasotzeko: OLLAON.

Bada Ollaon-mendiaren maldan baserri bat. Egin nion galdera berdiña bertako etxeko jaunari; eta beste aiek bezalaxe erantzun zidan onek ere:

«Guk, beti *Ollaon* esan izan diogu, eta orrela entzun ere entzun nien, emen inguruko lengo jende zaarrei».

Eta ez da ori bakarra, nere uste onen alde -ots, bein baiño getagotan dokumentu zaarretako *LL*, gure *L* ez baiña gure *LL* dala -egiaztatzeke aurkeztu dezakedana.

Gure larruki zarreko *Ollaran*'go lekaidetxe aren inguruan daude, Altzo Beckoan bertan, izen auek:

-OLLETA, abizen baten sort-leku izandako basetxe zaarra, *Ollaon* mendiaren sortaldeko maldan.

-OLLANGOR, toponimo edo toki-izena.

Ona ba: izen oiek, oraindik orrelaxe agoskatzen dira Tolosa'n: *Olleta*; *Ollangor*. Andik urruti ez dagoan Albiztur'ko baserri bati OLLAATEA esaten zaion bezala.

Ain zuzen, gaur Bidani'ko Atea esan oi zaion aldapa pikuari, OLLA'ko ATEA esaten zitzaion len. Antxe dago OLLAATEA baserria.

Izan da norbait, -ez bait naiz oroitzen non dutan irakurria-, izen oietako OLA ori burni-ola ez baiña belar bat izango dala diona. Ez noski, aipatu ditudan izen oietan, Ollabarre'n adibidez, Olla ori ez bait daiteke belar bat izan.

Gaiñera, gure *Ollaon*, *Ollaatea*, *Ollangor* eta *Ollazabat* oiek dauden tokia, burni-ola tokia bait zan. Gaur bertan atxe dauzkagu, *Ollaon*'en iparrean, *Garmendiola-Mendi*, len *Yurre* esan oi zitzaiona. Eta Altzo Beckoa'n bertan OLA IZENEKO iru baserri: OLAZAR Goikoa, OLAZAR Bekoa eta OLAZAR Erdikoa.

Ez dago ain urruti, Andoaindik gora, Plazaola'ren alboan OLLOKI ere Leizaren ibaiako arrupear, naiz, izen ortan bai, eskierki, OLLO ori belar baten izena izan, erderazko «jara»ren euskal izena.

Besteren batentzat, Thalamas Labandibar irakaslearentzat adibidez, Ollauri'ren OLLA ori, lapikoaren gazteleraizko izena da: OLLA.

Ezin izan daikean gauza: gure izenetako *olla* oiek oso-oso zarrak dira. 1025'an agertzen zaizkigularik, eta ugari agertu ere, leenagokoak, askoz leenagokoak, dirala sinistu bearrean aurkitzen bait gera.

Gazteleraizko olla berriz, -eta gaztelera bera-, askoz berriagoak dira. Joan Corominas'ek dionez gaztelararen *olla* ori XIII mendean agertzen da aurreneko aldiz Bertzeo'ko Gontzal'en liburuetan, eta Martin Alonso'k dionez XIV'ean. Don Juan Manuel'en «El Conde Lucanor» liburuan.

Jaso dezagun ba, aurrera jarraitu baiño len, gure azterketa labur ontatiko lenen zitua:

Dokumentu zaar aietan, gure LL'ren doiñua emateko, bi era erabiltzen dirala gutxienez, -beste irugarren era bat ere bai bai daidazti zarretan:

-Lenengoa: Gaur egungo portugaldarrek bezala, *LH*.

-Bigarrena: Gaur-egun guk gerok bezala, *LL*.

Ez bata ez bestea, era egokiak ez dira: *LL*, guk agoskatzen ditugun modura *LL* bat ez baiña, italiarren agoskatzeko modura, -«ella è bella la donna»-, bi *L* bait dira. Eta portugaldarren *LH*, *LL* ez baiña *LH* soilki. Ortaz, aien OLHAR (lapikua) Olla ez baiña Olja agoskatu bearko litzake.

Orregaitik, erarik egokiena Arana Goiri'tar Sabiñ'ena genduan: *L* gangarduna: ez dakit zergaitik, jez dakit zergaitik!, gure gaurko jakintxuñoek bazterrean utzia izan dan era!.

Erdiaroko dokumentu zarrek badute *LL* adierazteko beste irugarren era bat ere: *LL* orri, batzuetan *E*, batzuetan *I*, eta beste batzuetan *JE* aurretik erastea.

-CASTELLA; gure egunetako Castilla, orduan Castilla esaten bait zan naiz Castilla idatzi, filologilarien ustez. Orrela Menendez Pidal berak. -OLIO, *I* atzetik duela, X mendean, 951'ko larruki batean: «Ego *Olio* et uxor mea...» OLLO agoskatu bear da Olio ori, gaurko itz berezko abizena, eta izen bereko erri naparra bezala: OLLO. Eta ez izen orrek zartairako olioarekin zer ikusirik, Azurmendi'k bere tesi-liburuan orrela esaten badu ere.

-AYLLOZ, *I* aurretik duela, Naparroa'ko III Santxo Nagusia'ren larruki batean. Larruki au, jaiotzez, 1007'koa da, naiz gero, XII mendean anpatua izan. Baiñan izentoki geienak, 1007'an lenen-idatzia izan zan larruki artakoak dirala dirudi.

ALHANIELLA. Goraxeago aipatu-berri dugun Arabar-Errioxa'-ko toki-izena, gure LL'ren doiñua emateko bi L'een aurrean IE ditula. Orrela ikusiko duzu idatzia maizenik Gaztela'ren izena ere: CASTIELLA. Agoskatu ordea, CASTILLA agoskatzen zuten.

Gure Errioxa'ko Biñaspren deritzan errian zegoan *Alhaniella* ura. Ta ezarian bezala diot au: Euskeran *L* ta *R* sarri alkar-aldatzen diran ezkerro, izen ortako ALAN ori ez ote zan jatorriz ARAN? Alaniella=Araniella: Vallecillo, erdi-euskera eta erdi-erderazko itzez.

Baitez esango nuke, larruki berean eta erri berean, garai artan HALAZAR bat izan ez balitz. *Alazar*. Valle Viejo zala itxura gutxiko gauza dalarik, ALA ori ez bait daiteke ARAN izan.

Beste gauza bat ere esan nai nizuke, gaurkoz H'aren arazoa ukitzeari azkena eman baiño len: Aldizkari ontan, onen aurreko zenbakian, agian euskeran H'z orbandua izan ez dan itza, -itz bakarra-, Gipuzkoa dugula esan nizuan. Eta egia da ori. Baiñan, altagutziz, ez da Gipuzkoa ere oso-osoa H'aren kiratsak ukitua izan gabe gelditu: 1329'ko idatzi batean HIPIZCOANOS, agertzen bait zaigu, urte ortan Gipuzkoa'k eta Naparroa'k, bien arteko muga-lurra gaizkillez garbitzako tajutu zuten itunari, «Hermandad de los Hipuzcoanos Y navarros» eman zioten ba izena!

MONASTERIUM esaten diote Garzia Aznar Gipuzkoa'ko lenen Jaunak eta Gayla bere emazteak Ollazabal'ko elizari: «Tradimus...

illud monasterium quod dicitur Ollazabal: «Ollazabal esaten zaion monasterium» ura damaiogu», (Peña'ko Lekaidetxeari).

«Monasterium» gure larruki zarretan ez da beti «Lekaidetxe»; geienetan jauretxe bat besterik ez da; bere apaizetxearekin. Apaiz orrek, ia beti, «abata» artzen zuan izen.

Ollazabal'ko Jauretxe ori, Altzo Bekoa'n zegoala, esan dugu.

Baiñan, noiz izan zan egiña, ori, ez dakigu. Ezta, ziurki, zein Doncren omenez izan zan egiña ere.

Larruki onek berak, jauretxe ari «Ollazabal'ko «Columba» Donearena» esaten zitzaiola, diosku: «Sancte Columbe Ollazabal uocitatur».

Laterazko «Columba», euskeraz, «Usoa» da. Uso ori, Gebara Ezkiaga'k, Josu'ren ama Miren dala uste izan du: eta Ollazabal'en antziña artan egon zan Miren'en irudia, Izazkun'goa bera dala. Irudi ori Ollazabal'dik Tolosa'ko Garmendiola mendian dagoan baselizara igaro zala; eta, emendik, gaurko Izazkun'go bere santutegira.

Egia da, Garmendiola mendiari, len Yurre-Mendi esaten zitzaiola. Egia da gaur Blas Donearena dan baseliza, orduan Miren Donearena zala: «Yurre'ko Birjiñaren baseliza». Baiña ez dakigu ziur gaurko «Izazkun'go Birjiña», orduango «Yurre'ko Birjiña» zanik, -badirudi baietz-. Baiñan inolaz ere ez dakigun gauza, auxe da: Antziñako «Yurre'ko Birjiña» eta antziñagoko «Ollazabal'ko beste Birjin ura», Birjin bat bera ziran.

Eztare, ez dakigu, Gebara Ezkiaga'k nai duan bezala, Ollazabal'ko jauretxea Miren Birjiñari eskeñitako jauretxe bat zan; Columba. -Usoa-, izeneko done bat baiño geiago agurtzen bait ditu Elizak.

Orrela, Usoa Doneari eskeñia ba'zan Ollazabal'ko Jauretxe zar ura, Napparroa'n dagoan Uxo'a'ko jauretxearekin izen-kidea zan.

Baiñan ezer ziurki ez jakiteko, Ollazabal'ko jauretxe ura Usoa Donea'ren izenekoa zan ere ez dakigu, ogeitalau urte geroago, 1049'an, Blaskita «Domna Blasquita»-gure Aznar'en eta Gayla'ren

alaba'k, Ollazabal'ko jauretxeari «monasterium Sancti Salvatoris» esaten diola bait dirudi. Ikus:

Bai omen zan Peña'ko Lekaidetxean «Santxo izeneko lekaide bat, biniestarra jatorriz»: «Fuit quidam monachus in cenobio Sancti Iohannis nomine Sanctius, ex vico qui appellatur Biniesses».

«Gero ordea, Giputz-lurraldekoa zan Galga andreak, bera zegoan here lurraldea artarako eskatu omen zion lekaide ura aren abatari: «Postea vero domina Galga, ex regione Ippuzka, rogavit abbatem eius ut eum dirigeret ad suam regionem, ubi erat ipsa».

«Eta, lekaide ura, Santxo jauna, Gipuzkoa'ko Salvatore-Donearen-jauretxean jarri omen zuan»: «Et posuit eum domno Sancio in monasterio Sancti Salvatoris de Ippuzka». (Oiek danak, Blaskita berak damaizkigun albisteak dira).

Gala au, eta 1025'ko larrukian Garzia Aznar'ekin ezkundurik aurkitu dugun Gayla ura, biak andre bat bera dirala esango dizute ago batez edestilari danek. Izan ere....

-Gipuzkoa'n orduan Salvatore Doneari eskeiñitako beste jauretxe bat bazanik ez dakigu.

-Gayla edo Galga andrea, ospe aundiko emakumea zan, ikusi dugun bezala, eta Ollazabal'ko «monasterium» ari txit lotua.

Sinistekoa da Beraz Ollazabal'koa izango dala, Peña'ko Abatari eskatu zion lekaide ospetsu aren bidez ornitu nai izan zuan «monasterioa».

Orregaitik, edestilari guztien ustea da, larruki ontako «monasterio Sancti Salvatoris de Ippuzka» eta beste larruki artako «Sancte Columbe Ollazabal uocitatu» ura jauretxe edo lekaidetxe bat bera zirala.

Gaiñera, geroago, bigarren larruki batean, 1056'garren urtean, gure Blaskita ark aipatzen du, Galga andrearen eta Garzia Aznar'en alaba lez, «ego Blasquita, filia de domina Galga et senior Garcia Azenarez», «Gipuzkoa'ko Salvatore Deunaren jauretxea», «monasterium Sancti Salvatoris de Ippuzka», jauretxe orren emaiza Peña'ko Lekaidetxeari bir-egiñaz.

Zalantzarik gabe esan daiteke beraz, iru larruki oietako jauretxea bat bera dala: Ollazabal'ko jauretxea.

Noren omenez izan zan, ordea, lekaidetxe zar ura sortua? Salbatore Donearen omenez? Usoa Donearen omenez? Pakeak egiteko, pozik esango nuke bien omenez izan zala eraikia, baiña Blaskita'ren bi larrukiek zalantzarik gabe adierazten digute, jauretxe ura, soilki, Salbatore Donearena zala. Orrela deitu ere deitzen zaio oraindik Altzo Beeko edo Altzoazpiko parrokiari Salbatore Deunaren parrokia.

Noren omenez eraikia? Salbatore Donearen omenez? Usoa Donearen omenez? Esan dezagun, pakeak egiteko, bearbada bien omenez izan zala eraikia. Ez, beintzat, Miren Neskutsaren omenez.

* * *

PINNA.- «Ego quidem senior Garcia Acenariz et domina Gayla, pro remedio anime nostre, tradimus Deo donante ad monasterium Sancti Iohannis Baptiste de Pinna, illud monasterium quod dicitur Ollazabal»: «Nik bada, Garzia Aznarrena Jaunak, eta Gaila andreak, gure gogoentzako osungailu dedin, Ollazabal'koa esaten zaion lekaidetxe ura eskeintzen diogu. Jainkoak grazi eman ez, Peña'ko Donibane Batailariaren lekaidetxeari».

Peña'ko lekaidetxe oni, PINNA ez baiña PENNA esaten zaio Gayla edo Galga'k berak idatziazitako larruki batean:

«Ego humillima Galga de Ipuçcha... facio hanc cartam oblationis ad honorem Sancti Iohannis Bapstiste de Penna». «Nik, Gipuzkoa'ko Galga gaixo onek... emaitza-gutun au idatziarezten dut Penna'ko Donibane Batailariaren omenez».

Iru aldiz darabilki lekaidetxe aren izena eta iruretan PENNA esaten dio.

Euskalerni zarraren edestian garrantzi aundiko Lekaidetxea izan zan Peña'ko Donibane Batailariarena. Peña'ko Katean, «Sierra de la Peña» izen-duan mendi-sail latzeko arkaitz batean irikitako leiza batean dago eraikia.

Leiza ura, gizonek irikia da, Araba'ko «Goba» edo «Gobia» zarraren antzera; ez da mendiak berez sortua.

Arabako giza-leiza oiek oso zarrak dira: V, VI eta VII mendee-
takoak; Euskalerra, bere askatasuna babesteko, bisigoten aurka
borroka bizian zebillen denboretakoak.

Peña'ko lekaidetxea nōzkoa dān, ez dakigu.

Araba'ko leiza-zuloak, erdiaro guren artako anakoreta edo
bakartasunzaleek egiñak dira. Giza-leiza oiei, Araba'ko euskera
bizkaiera izan bait zan, «las gobas» esaten diete arabarrek oraindik
sortaldean, eta «las gobias» sarkaldean, Valdegobian. (Val de Gobia
= Valle de las Gobias = Gobiaran).

Peña'ko Lekaidetxea norik eraikia izan zan ziurki ezin esango
dizut. Naparroa'ko errege batek eraikia izan zala, bai. Batzuentzat
errege ori Garzia «Jimeno'rena» Pa izan zan; beste batzuentzat, III
Santxo «Nagusia»; beste batzuentzat, Naparroa'ko, eta Aragoi'ko
Pedro Pa, III Santxo «Nagusia»ren birbilloba.

PEÑA, euskal abizena era bada, Baiña Kerexeta'ren ustez,
gaztelerazko «peña» besterik ez omen da seguruaski.

Ez nator oraingoan nere adiskide zintzo orrekin bat. Ez bait dut
uste gure *Peña* abizena, erderazko «peña» danik. Askoz gutxiago
seguruaski orrela danik; zabalduegia dago ba Euzkadi osoan,
orrela izateko, gure Peña abizena.

Lopez Mendizabal'en ustez berriz, *Peña*, *P* edergailluz eta *ENA*
edo *EINA*, erderaz larre esan nai duan euskal itzaiz osotutako izena
omen da. Baleike, Aragoi'ko Peña mendi-katearen maldak larre-
toki bait dira, baiña *ena* edo *eina*-larre dala nondik atera duan ez
dakit.

Egokiagoa iduritzen zaiz Kerexeta'k berak damaigun beste
irtenbidea: *Peña* alegia, *Beña*'ren aldakuntza dala. Ori, baleike, *P*
eta *B* euskeran oso-oso maiz bata bestearekin trukatzen bait dira.

PEÑA, beraz, BEÑA dugu, aurrizki edo atzizki bezala ainbeste
ta ainbeste toki-izen eta abizenetan agertzen zaigun itza.

Mitxelena'ren iritziz, BEÑA-ARAN, «zimaaur-aran» izango litza-
ke, BEÑA «las hezes» omen da ba. Ez dut uste. Atsegiñagoa izango

litzaidaket belar baten izena dala esatea, baña zoritzarrez, euskeraz, kixazko landare-iztegerik ez dugu.

Gauza bat da ziur dakidana. Antziña artan Peña'ko Lekaidetxea dagoan lur aragoitar aietan ez zala erderarik itzegiten, eta orregaitik jendeak mendi-kate arri Peña izen ematean ez ziola erderazko izen bat eman, euskerazkoa baizik.

Erdel izen ori, ez ote zioten lekaidetxeko lekaideak, latiñea eskua sartuz eman? Peña, lateraz PENNA bait da.

Ez dut uste. Geienaz, lekaide aiek eginen zutena euskal izenbat latiñera itzultzea izango zan. Ori maiz egiña izan dalaren adigarriak bai bait ditugu beste larruki batzuetan.

Nere ustez ordea, PEÑA, BEÑA'ren aldakuntza besterik ez da.

Ta, Lekaidetxe aragoitar ura zegoan tokia oso-osoan euskalerrri zala ulertzeko, gaur oraindik aren inguruko lur eta errieci ematen zaizkien izenci begiratu besterik ez duzu: *Jabierre*, adibidez; edo *Loarre*, *Oroel*, *Aierbe*, *Biel*, *Belarra*, *Loarre*,...

Luze goaz ordea ta, urrengoan jarraituko dugu.

Latiegi'tar Bixente